

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

318

Otsailak 1, 2018

Txotx denboraldia hasi da Ola Sagardotegian

- 2 Irun Atzo Irun Gaur
- 3 Udal Gobernuko ituna hautsi dute
- 4 Memoriaren plazan
- 5 Bakearen Eguna
- 6-7 Badatoz inauteriak
- 8-9 Hondarribia Ikasbaket
- 10 Kolaborazioa: Gorka Martinez

- 11 Haurren leihoa
- 12 Bertsoak / Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Kuadrillak 2.0
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Agenda
- 16 Ola Sagardotegia



ola
SAGARDOTEGIA
Itxaki Bengoetxea

- Kalitatezko sagardoa, bertako sagarrekin ekoiztua.
- Asteburuetan, trikitiarekin.
- 943 62 31 30

ZATOZ!



IRURETAGOYENA SELLES, JULIA



Irakaslea. Irunen jaio zen, 1886an. Leon Iruretagoyena Camino zuen aita, hamahiru urtez Irungo alkate izan zena. Tomas Meabe idazle eta Gazte Sozialisten sortzailarekin ezkondu zen.

Jarduera biziko emakumea izan zen, Espainiako ezkerren baitan. Meaberekin batera, haien idatzien eta iritzien ondorioz, Frantzia eta Ingalaterran erbesteratua ibili zen, mende hasieran. 1915 urtearen hasieran itzuli zen Irunera. Gero Madrileran joan ziren. Senarra 1915eko azaroan hil zen, tuberkulosiak jota.

Nazioarteko Lan Erakundean lan egin zuen Iruretagoyenak, Espainiako Gerra Zibila amaitu zen arte. 1936ko irailean, seme kimikaria, gerra laborategian lanean zegoela hil zen, eztanda baten ondorioz.

1939ko udaran, Mexikora alde egin zuen Iruretagoyenak. Bertatik, erbesteko errepublikazaleei laguntza eskaintzeko lanean murgildu zen. Hizkuntzak irakasten eta Espasa Calpe argitaletxean ere aritu zen. Mexiko Hirian zendu zen, 1954ko urriaren 3an.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Unai Oiartzun
Ainara Berges

Euskara zuzentzilea:

Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinuaren eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Udal Gobernuko ituna hautsi dute

PSE-EEK bakarrik jarraituko du gobernatzen, gutxiengoan



Ezkerrean, EAJko Lander Ugartemendia eta Xabier Iridoy. Eskubian, PSE-EEko Miguel Ángel Páez eta José Antonio Santano.

Bukatu da PSE-EEK eta EAJk Irungo Udal Gobernuan eduki duten ituna. 2015eko uztailean sinatu zuten, eta orduz geroztik elkarrekin aritu dira udalaren gidaritzan. Bi udal taldeek baieztatu dute hasieratik izan dituztela tentsioak, baina azken hilabeteetan, azalera atera eta agerian gelditu dira. Azkenean eztanda egin dute, itunaren amaiera ekartzearaino. José Antonio Santano alkate sozialistak Xabier Iridoy Hirigintza ordezkarari jeltzalea kargugabetu du, kudeaketa txarra argudiatuta. Ondoren, EAJko beste bi ordezkariek dimisioak aurkeztu dituzte, eta sozialistek ordezkatu dituzte jada.

PSE-EEkoak dira, dagoeneko, Irungo Udal Gobernuko departamentu guztietako ordezkarik politikoak. Miguel Ángel Páezek hartu du Hirigintza eta Etxebizitza arloa, Xabier Iridoyren ordez. Cristina Labordak Lourdes Larraza ordezkatu du, Udaltzaingoaren eta Elkarbizitzaren arduruan. Hezkuntza, Gazteria eta Euskara arloak Mónica Martinezen esku geratu dira, Josune Gomez jeltzalearen dimisioaren ondoren. Martinezek %50eko arduraldia zuen orain arte, Kooperazio, Balio eta Giza Eskubideen arloan. %100ekoa izango da hemendik aurrera.

“Xabier Iridoy kaleratuta, EAJ guztia Udal Gobernutik kanporatu du Santanok”, adierazi du Lander Ugartemendia Irungo EAJko lehendakariak. Ituna hautsitzat eman du EAJk, alkateak Hirigintza ordezkarria kargugabetu eta gero. Beste bi ordezkarik jeltzaleek, Gomezek eta Larrazak, dimisioa sinatu dute, “ekintza koherentea” dela adieraziz. Oposizioan geratuko da EAJ, eta “oposizio konstruktiboa” egiteko asmoa duela baieztatu du. “Xabier Iridoy eta gainontzeko zinegotziak pertsona langileak eta zintzoak dira. Alderdiaren babes osoa dute”, erantsi du Ugartemendiak.

Xabier Iridoy Hirigintza ordezkararen “kudeaketa txarra” salatu du José Antonio Santanok, erabakia arrazoitzeko asmoz. Zehazki, Korrokoitz eremuko Hirigintza proiektuaren inguruan: “Iruditzen zaigu lerro gorri bat gainditu duela, Udal Gobernuarenari ez ezik, Irungo Udalaren sinesgarritasunari eragiten diona”. Urtarrilaren 12an, Xabier Iridoy jakinarazi zuen Korrokoitz inguruko jabe pribatuekin akordioa lortu zuela, eremuko Hirigintza Plan Berezia garatzeko. Erantsi zuen udaleko teknikariek akordio horren bideragarritasuna frogatuko zutela.

Azken baieztapen horri heldu dio Santanok, hain zuzen ere, Iridoyk gainditu duen lerro gorria azaltzeko: “Teknikariek ezin dituzte akordio pertsonalak abalatu. Prozedura kontrakoa da, hain justu. Politikariok erabakiak hartu behar ditugu, teknikarien txostenen arabera. Haie-tatik abiatuta”. Alegia, salatu du legeak markatutako bidetik kanpo aritu dela Iridoy. EAJk Xabier Iridoyren kudeaketa defendatu du, eta Santanori exijitu dio egindako salaketan frogak mahai gainean jartzeko. Sozialistak jeltzaleen izena zikintzeko kanpaina betean daudela iradoki du. “Irregularitasunak frogatzeko tresnak ditu Udal Gobernuak”, gogorarazi du Iridoyk: “Aurkez ditzala frogak. Irundarrek egia jakiteko eskubidea dute”.

Aspalditik datoz eztabaidak

Santanok aipatu du, legaltasunaz gainera, gardentasuna dela Hirigintzaren beste zutabea. Horretan ere, Iridoyk huts egin duela uste du: “Akordio baten berri ematen baldin bada, uste dut Udal Gobernuko beste kideok ezagutu behar dugula. Komunikabideen bidez izan dugu akordio horren berri”. Komunikazioarena da, hain zuzen ere, PSE-EEren eta EAJren arteko tentsioen iturburu nagusietako bat. “Hasiera-hasieratik, ez dugu preferentzia traturik eduki. Beste talde politikoaren une berean jaso dugu informazio asko”, aipatu du Iridoyk.

Oposizioko beste talde nagusiek, hain zuzen, gogor kritikatu dituzte PSE-EEren eta jeltzaleen arteko eztabaidak. Ego-en lehiari egotzi dizkiote. EH Bilduko Jokin Melidak nabarmendu du ondorioak hiritarrek ordainduko dituztela. Koalizio abertzalearen ustez, sozialisten eta jeltzaleen arteko ituna “anti natura” zela nabarmendu du Melidak: “Interes zehatz batzuen inguruan egindako akordioa da, eta Irunen, huts egin du”. Sozialistek eta jeltzaleek, edonola ere, biek nabarmendu dute tokiko markoan ulertu behar dela ituna, eta hortaz, hausturak ez duela eraginik izango beste udaletxe edo erakundeetan.

David Soto Si Se Puede-Irun Ahal Duguko bozeramaileak hauteskunde borrokan kokatu du eztabaida: “Azken batean, agintaldia bukatzeko urte eta erdi geratzen delarik, udal gobernuak porrot egin du, seriotasunik, erantzukizunik, koordinaziorik eta elkarriketarik ez dagoelako”. Melidak gogorarazi du udal gobernurako alternatibak eskaintzen zituzten gehiengoak zeudela 2015ean, eta orain ere, badirela. Xabier Iridoyk, aldiz, adierazi du ez dutela halako aukeren inguruan hausnartu. Irun hiriaren eta irundarren alde lanean jarraituko dutela azpimarratu dute jeltzaleek. Oposizioan aritu beharko dira, hemendik aurrera, haien helburuen bila. PSE-EEK gutxiengoan gobernatuko du Irunen, 2019ko hauteskundeetara arte. 25 zinegotzietatik 10 dira sozialistak.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Ez dadin errepikatu

Haien testigantzak eman dituzte indarkeriaren biktimek Memoriaren Plazan



Indarkeriaren biktimen testigantzak bildu ditu Memoriaren Plazak Irunen, urtarrilaren 22tik 28ra. Eusko Jaurlaritzaren Gogora institutuak antolatutako ekimena da, Euskal Herrian azken hamarkadetan gertatutakoaren testigantzak jasotzeko eta zabaltzeko helburua duena. Hamasei herri edo hiritan, 30.000 bisitari baino gehiago eduki ditu jada, 2016an martxan jarri zutenetik. Irunen, Urdanibia plazan kokatu duten karpan, elkarrizketen bideoak eta zenbait dokumental ikusteko aukera egon da. Gainera, testigantzak emateko grabazio eremua eta mezuak idazteko murala jarri dituzte.

Goizetan, hiriko ikastetxe ezberdinetako 200 gazte inguru egon dira bertan, 16 eta 18 urte artekoak. Urtarrilaren 24an, mahai-ingurua egin dute Memoriaren Plazan, biktima ezberdinekin: María Ángeles Martínez ETAK eraildako Julio Martínezen alaba, María Isabel González guardia zibil batek eraildako Alberto Soliñoren alarguna, Mainer García GALEk eraildako Juan Carlos Garcíaen alaba, eta ETAREN bonba batek larri zauritu zuen Alberto Muñagorri.

1977ko abenduaren 16an, Julio Martínez Ezquerro Irungo Udaleko zinegotzia erail zuen ETAK, tiroz, Larretxipi kalean, garajearen atarian. Rosario Sánchez emazteak etxetik entzun zituen tiroak. Kalera irten zenean, hilda topatu zuen senarra. Marian Martínez alaba, aldiz, Madrilan zegoen orduan, ikas bidaian. "Prentsan izan nuen atentatuaren berri, hurrengo egunean, tren geltokian", azaldu du. Irunera bueltan, gertatutakoari aurre egitea gogorra izan zela baieztatu du.

Bakardadea azpimarratu du Martínezek, batez ere, inguruko babesik ez zuelako sentitu: "Jende askok bizkarra

ematen zigun. Batzuek justifikatu ere egiten zuten, iradokiz arrazoiren bat egongo zela". ETAK, atentatua aitortu zuenean, poliziarekin kolaboratu izana leporatu zion. Plaza de Españako (Zabaltza, gaur egun) kioskoan lan egiten hasi zen Martínez, amari laguntzen. Gogoan du amnistiaren aldeko manifestazioetan nola geratzen zen jendea haren aurrean: "Presoen aldeko oihuak entzun behar izaten genituen". Marian Martínezek onartu du ez duela aitaren erailketa inoiz barkatuko. "Justizia nahi dut", adierazi du.

Martínezek erailketa baino urte bete lehenago, alargun geratu zen María Isabel González, 24 urte eta hiru haur txiki zituela. Alberto Soliño senarra erail zuen kale-jantzitako guardia zibil batek, Eibarren. Musikaria zen Soliño, bateria-jotzailea, eta kontzertu bat ematera joan zen, bere taldearekin, Jai Alai aretora. "Irteeran, aparkalekua zela eta eztabaida izan zuten. Guardia zibilak kulata-kolpea eman zion buruan, eta tiroa ondoren", azaldu du Gonzálezek. Ez zen epaiketarik egon, eta Gonzálezek ez zuen inolako babes instituzionalik jaso. "Nik ezin dut krimen hori barkatu", aitortu du, Gonzálezek ere: "Nire ardura handiena zen semeengan gorrotoa eta mendeku gosea piztuko ote ziren. Zorionez ez da hala izan".

Urterik latzenetan

1980ko hamarkada bortitza izan zen indarkeriari dagokionez. 1982an, ETAK Iberdueroren bulegoaren aurrean jarritako bonbak eztanda egin zion Alberto Muñagorri, Errenterian. Hamar urte zituen. Bi hilabete eta erdi pasa zituen ospitalean. "Niri ez ezik, bonbaren uhin hedakorrak senide eta lagunei eragin zuen", adierazi du Muñagorri. Ondorio fisikoez gainera, inguruan sentitu zuen isiltasunaren mina gogoan du: "Zirkulu batzuetan, justifikatu ere egiten zuten". Gaur egun, erakunde publikoentzako mezu zorrotza du: "Bazter ditzatela haien interes

politikoak, eta utz diezagutela biktimoi hemen gertatu denaren historia kontatzen".

1987an, GALEn azken biktima izan zen Juan Carlos García Goena tolosarra. Bere autoan jarritako bonba batek hil zuen, Hendaian. Soldadutzatik ihesi alde egin zuen García Goenak Bidasoaren beste aldera. "Ez zuen ETAREkin harremanik izan", adierazi du Mainer García. Bost urte zituen aita erail zutenean. "Amak gorrotoa sentitzen zuen hasieran, mendekua nahi zuen. Guri esker eman zion buelta espiral horri", adierazi du García: "Ondoren justiziaren bila egin duen lana ereduagarria da". Gogorak gatzetxoekin antolatzen dituen tailerretan parte hartzen du, gaur egun, Mainer García. Esperientzia "itzela" dela nabarmendu du: "Oso azaletik landu izan da gaia, orain arte. ETAK armak utzita ere, lan handia egin beharra dago oraindik".

Aintzane Ezenarro Gogora institutuko zuzendariak baieztatu du gazteek egia kontatzeko eskatzen dietela. Ados dago Ezenarro: "Ez dezagun errepikatu frankismoarekin egin genuen berdina: luzaroan isilik geratu". Indarkeriaren erabilera errepika ez dadin, biktimen testigantzak entzutea funtsezkoa dela uste du Ezenarrok: "Oso zaila da, ikusi ondoren ekintza puntual batek bizitza osorako eragiten duen kaltea, indarkeria justifikatzen duen diskurtso batekin ateratzea". Ideologia eta sentsibilitate ezberdinak gorabehera, sentipen berdin batek batzen ditu biktima guztiak: sufrimenduak.

Bakearen alde bat egin dute Irungo Kristau Eskolek

Urtarrilaren 30ean bildu dira San Juan plazan



Irungo Kristau Eskolak elkartu dira, urtero bezala, Bakearen eguna ospatzeko. Urtarrilaren 30ean goizeko 11:30etan bildu ziren, San Juan plazan. Guztira 800 ikasle inguru elkartu ziren Irungo udaletxearen parean. Ekitaldi bateratu horrez gain, eskola bakoitzak bere kontu landu du bakearen gaia.

La Salle, El Pilar eta San Vicente de Paul Ikastetxeetako ikasleak elkartu ziren urtarrilaren 30ean Bakearen Eguna ospatzeko. San Juan plazan buruturiko ekitaldian, "7 kolore" abestia kantatu zuten zentro guztietako ikasleek, eta ostadarraren 7 koloreak erabiliz koreografia koloretsu bat burutu zuten. Abestiaz gain, bakearen inguruko testuak irakurri eta uso txuri bat askatu zuten. Irungo Kristau Eskoletako adin guztietako ikasleak bildu ziren ekitaldian, Karmelitak haurtzaindegiko haurrak izan ezik, horien adin txikia dela eta. Bakearen Eguna el-

karrekin ospatzeko asmoz 2012-2013 ikasturtean elkartu ziren lehenengo aldiz. Orduetik, urtero Bakearen Eguna ikasleekin ospatu dute, hain garrantzitsuak diren balioak gazteei txikitatik transmititzeko.

San Juan plazan buruturiko ekintzaz gain, eskola bakoitzak bere kontu landu du bakearen gaia. La Salle ikastetxean, esaterako, aste osoan zehar ospatu dituzte bakearekin loturiko ekintzak: goizeko gogoetak edo Bakearen Nobel sarien inguruko lanak egin dituzte ikasle handienek. Txikienek, berriz, haien adinera egokitutako fitxen bitartez landu dute gaia.

Gurasoek ere parte hartu dute

Ekintza hauen bitartez bakea eta errespetua bezalako balioak transmititu nahi zaizkie hurrei, haientzako motibagarriak izango diren ekintzen bitartez. Balio hauen bidez hurrei gaur egun munduan dauden desoreka eta

gatazkak ulertzeko tresna erabilgarriak eman nahi zaizkie, bakearen benetako balioaz ohartu daitezzen. Amaia de la Cava La Salle ikastetxeko langileak adierazi du jada hurrei Siria bezalako izenak ezagunak zaizkiela, albigetietan behin eta berriro entzuten baitituzte: "Honelako jardueren bitartez errealitatea ulertzea errazagoa da etxeko txikientzat"

Zentro hauetako gurasoei ideia paregabea iruditzen zaie hurrekin honelako ekintzak antolatzea eta bakea bezalako gai pisutsuak txikitatik lantzea. Irungo lau Kristau Eskoletako gurasoak hurbildu ziren San Juan plazan ospatu zuten ekitaldira, hurrekin batera bakearen inguruan jardunaldi hauetan parte hartzeko aukera izan zezaten. La Salle ikastetxeko Amaia de la Cava azaldu duenez, oso garrantzitsua da gurasoak ere egunerokotasunean integratzea, haiek ere parte har dezaten, eta umeek jasotzen duten heziketatik hurbil senti daitezten.

ESKATU ZURE AURREKONTUA

943 90 34 50



bertako
Igoailuak | ascensores

www.bertako.eus

info@bertako.eus

Zure aurtengo mantenu kuota

%40 raino aurrezteko aukera

daukagu zuentzat

Badatoz Inauteriak

Otsailaren 3an hasiko dira Inauteriak Irunen, Kaldereroekin



Irungo inauterien programaren barnean era askotariko ekintzak eta ospakizunak biltzen dira. Zerrenda luze hori Inauteri aurreko asteburuan abiatzen da, Kalderero Hungariarren eta Inude eta Artzainen konpartsekin. Kaldereroek otsailaren 3an, larunbata, zeharkatuko dituzte Irungo kaleak, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Igandean, berriz, inude eta artzainen txanda izango da.

Kalderero Hungariarren Konpartsa

Konpartsa izenak adierazten duen moduan, bisitari hauek Hungariako lur urrunetatik datoz, haien herrialdeko doinuekin Irungo kaleak alaituz inauterien etorreraren berri emateko. Kaldereroen Konpartsa Irungo Atsegina Elkarteak antolatzen du eta 1891ko otsailaren 8an atera zen lehen aldiz. 1954ra bitartean konpartsa zazpi aldiz bakarrik antolatu bazuten ere, orain Irungo inauterietako hitzordu garrantzitsu bilakatu da.

Joxe Aranburu da gaur egun Hungariatik datorren tribu honen buruzagia. Hamabost urte inguru daramatza Kaldereroen konpartsan parte hartzen. Hasieran, konpartsa laguntzen zuen txarangan perkusioa jotzen zuen, baina tribu-buruzagi postua hutsik geratu zenean ardura hori beregain hartzea proposatu zioten.

Irungo kaleetan zehar zuzentzen du Joxe Aranburuk tribu hungariarra, baina bere lana ez da hor amaitzen. Honelako ardura bat izateak ordu asko ematea eskatzen du, Joxe Aranburuk adierazi duenez: "Urte osoan zehar lan egin behar da horrelako konpartsa bat aurrera ateratzeko". Gogor lan egin behar den arren, esfortzuak merezi du, gero eta jende gehiago ateratzen baita kalera, eta gauean txarangarekin batera elkarteantolaturiko afarian oso giro ona sortzen baita.

"Elkarte desberdinen laguntza ezinbestekoa izan da Kaldereroen Konpartsa indartzeko"

Joxe Aranburu, Tribuko buruzagia

Azken urte hauetan Kaldereroen Konpartsak gora-behera garaiak bizi izan ditu. Duela urte batzuk parte-hartzea asko jaitsi zen. "Elkarte desberdinen laguntza ezinbestekoa izan da Kaldereroen Konpartsa indartzeko", azaldu du Aranburuk. Egun, Irungo Atsegina Elkarteaz gain, dantza talde, abesbatza, zalditegi eta auzo elkarten laguntza du konpartsak.

Kalderero Hungariarren Konpartsan adin guztietako pertsonak parte hartzen dute, baina tribuko buruzagiak onartu du gehienak emakumeak direla. Jantziak eskuratzea oso erraza da eta urrezko bitxiak dira Kaldereroen apaingarri bereizgarria. Joxe Aranburuk adierazi du abestien letrak ikasteko oso errazak direla, abesti ezagunak direlako eta, gainera, Irungo Atsegina Elkarteak abesti hauek prestatzeko entseguak antolatzen dituelako urtero. Aurtengo otsailaren 1ean burutuko dute entsegu hori.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM



Inude eta Artzainak

Kaldereroak erretiratu ostean, igandean, Irungo kaleak Inude eta Artzaintzako libre geratzen dira. Aurten otsailaren 4an hiriko kaleak zeharkatuko dituzte saltoka, beste hainbat pertsonaien laguntzarekin. Urtero moduan, konpartsa eguerdiko 12:00etan irtengo da Santiago kaletik, eta Luis Marianon amaituko du bere ibilbidea.

Inudeak eta artzainak dira, zalantzarik gabe, konpartsa honetako pertsonaia nagusiak. Inudeek eskuekin panpina astintzen dute, menditik jaitsi berriak diren artzainek bizkarrean makila daramaten bitartean. Eraiki Dantza Taldeak antolatutako konpartsa honen bitartez inude eta artzainen arteko gorietatzea irudikatu nahi da, besteak beste. Inude eta artzainez gain, konpartsan beste hainbat pertsonaia daude, garai hartako gizartea irudikatzen: mediku-erizainak, elizako kargu ezberdinak, alkate-alkatesak, goi mailako gizartea, eskolako ikasle-irakasleak, langileak eta bestelako pertsonaia. "Jende asko animatu da aurten pertsonaia moduan konpartsan parte-hartzera", aipatu du Xabier Mugika konpartsako antolatzailea. Aurten, pertsonaia zein dantzarien artean guztira 130 lagun izango dira.

Adin desberdinetako dantzariak osatzen dute konpartsa, txikienek 5 urte inguru dituztelarik. Hiriko kaleak saltoka zeharkatzen dituzte eta geldialdietan dantzari helduek fandango eta arin-arina dantzatzen dituzte. Zabalza plazan, Irungo Musika Bandarekin

"Jende asko animatu da aurten pertsonaia moduan konpartsan parte-hartzera"

ba-

Xabier Mugika, konpartsako antolatzailea

tera, errepresentazio bat burutzen da pertsonaia hauek garai hartan zeramaten bizitza irudikatzen. Musikaren laguntzaz hurren batailatzea edo txertoa jartzeko medikura bisita irudikatzen dituzte.

Irungo Atsegina Elkarte arduratu zen hasiera batean Inude eta Artzainen Konpartsa antolakuntzaz, ohitura galdu zen arte. Elkartearen 75. urteurrena ospatzeko Eraik omenaldi moduan Inude eta Artzainen konpartsa antolatu zuen 1997 urtean. Omenaldian izandako arrakasta ikusita, 1999 urtetik aurrera, urtero konpartsa antolatzeko ardura hartu zuen taldeak. Urte horretatik aurrera, Eraik agindutakoa bete du eta urtero inauterien aurreko igandean kalera irten da, baita eguraldi txarrenarekin ere.



ANTIXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54-57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54-57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Goranzko bideari jarraipena eman dio Hondarribia Ikasbasket-ek

Lehen Mailan jarraitzeko helburua bete du aurten emakumeen talde nagusiak, aurreko denboraldietan bi igoera segidan lortu ondoren

Bilakaera itzela darama Hondarribia Ikasbasket elkarteko emakumezkoen talde nagusiak. Bi igoera lortu ditu segidan, azken bi sasoietan. Aurten, laugarren tokian geratu da ligako lehen fasean. Horri esker, igoeraren bila lehiatuko da, bigarren fasean. Bide batez, denboraldiko helburua bete du, Estatuko Lehen Mailan ariko baita berriro, gutxienez, hurrengo denboraldian. Ganix Miron irundarrak zuzentzen du taldea, eta zenbait bizilagun ditu haren aginduetara.

Cristina González kapitaina ere irundarra da. Urteak eman zituen Ganix Mironekin Erroibide elkartean, eta garai hartako zenbait taldekide ditu orain ere, Hondarribian. Esan daiteke Lehen Mailan aritu zen Erroibide hura dela egungo Hondarribia Ikasbasket elkarteko emakumeen talde nagusiaren oinarria. Horregatik, 2015-2016 denboraldian maila erregionalean hasi zenean, agerian gelditu zen kategoria hura txiki geratu zitzaiola. Igoera lortu zuten orduan, eta iaz ere bai. Aurten Lehen Mailan aritu dira, multzo zail batean. "Talde indartsuen aurka aritu gara", baieztatu du Cristina Gonzálezek.

Lehen jardunaldietan, mailara egokitzea kosta zitzaien. Gutxi iraun zuten, dena den, hasierako zalantza haiek. Jokatzeko era egokia topatu zuen Hondarribiak, eta lehiakorra izan zen, aurrerantzean. Neurketa estuak izan dira gehienak, markagailuan, behintzat, txikiak izan dira aldeak. "Gutxigatik irabazi edo galdu dugu, gehienetan. Oso lehiatuak izan dira partidak", azaldu du Gonzálezek. Defentsako lanak berebiziko garrantzia eduki du, saskiratze gutxiko norgehiagokak izan baitira.

Lehiakorrak izateko ahaleginak egingo dituzte

Igoera fasean, esperientziaz gozatea izango dute helburu. Jakinda, partida guztiak oso gogorak izango direla. Egitura profesionalagoak dituzten klubak kontra ariko da Hondarribia. Nolanahi ere, Cristina Gonzálezek ziurtatu du inolako konplexurik gabe egingo dietela aurre: "Gure helburua da ahalik eta lehiakorrenak izatea, norgehiagokekin disfrutatu ahal izateko". Haien artean, behintzat, giro atsegirik ez da faltako. Taldekideen artean oso harreman ona dutela adierazi du Gonzálezek: "Gehienok aspaldidanik ezagutzen dugu elkar, eta duela gutxi iritsi direnak ere, ondo egokitu dira".

Igoera fasea esperientzia ederra izango da, batez ere, taldeko gazteenentzat. Izan ere, oraindik kadete mailakoak diren neskek ari dira, tarteka, lehen taldean. Maila ona dutela erakutsi dute, eta klubak bidea egingo die. Hondarribia Ikasbasket-en lehen taldearen zalantza ezina baita harrobiko lana.



"Gutxigatik irabazi edo galdu ditugu partida gehienak"

Cristina Gonzalez, kapitaina

GANIX MIRON, Hondarribia Ikasbasket taldeko entrenatzailea:

“Egun ona daukagunean, oso zaila da gu mendean hartzea”



Nekatuta utzi zuen Ganix Mironen Irungo Erroibide elkartearen jokalariek bilatzen eta konbentzitzen aritu behar izaten zuen urtero, udaran, hurrengo sa-soirako emakumeen talde nagusia osatzeko. Hondarribia Ikasbasket-en aritzeko proposamena egin ziotenean, ordea, ilusioz hartu zuen erronka. Talde sendoa osatu eta emaitzak lortu ditu, azken hiru denboraldietan. Harro dago egindako lanarekin.

Aurreikusten zenuen lehen fasean mailari eustea lortuko zenutela?

Zaila zirudien, baina egia da udaran taldea indartzea lortu genuela, hiru jokalarri berrirekin. Ikusten genuen lan talde ona genuela, eta lehiakorrak izango ginela. Hala, sekulako poza izan da lehen fasea laugarren tokian amaitzea.

Nik uste irabazi beharreko partidak irabazi ditugula. Gure mailako taldeen kantxetan ondo lehiatu dugu, eta partidak irabazi ditugu. Batez ere Gasteizen Araskiren aurka, eta Logroño Campus Prometeren etxean. Gero, gure aurretik geratu diren hiru aurkarien kontra ezin izan dugu irabazi, baina ahalegin handiak egin ditugu, eta gutxigatik galdu dugu gehienetan.

Zein izan da zuen jokoaren oinarria?

Beste taldeetan, jokalarri batzuek erraztasun handia dute puntuak lortzeko. Guk ezin dugu horrelako jokorik planteatu, gure jokalarrien ezaugarriak kontuan hartuta. Beraz, joko kolektibo ona egiten dugu, eta batzuetan joko moteldu, erritmoa mantsotu.

“Irabazi beharreko partidak irabazi ditugu”

Denbora daramagu zeharkako blokeoak lantzen, adibidez, eta hori nabaritzen da. Egun ona daukagunean, oso zaila da gu mendean hartzea. Orain, igoera faserako proba berriak egiten ari gara, ea zer moduz ateratzen diren. Eta ea min hartutako jokalarriak lehenbailehen berreskuratzen ditugun, Eguberriak pasata, zorte txarra eduki baitugu. Falta zaizkigun jokalarrien hutsuneak nabaritzen ditugu.

Zer topatu duzu Hondarribian, ilusioa berreskuratzeko?

Batzuetan jendearen laguntza eta bultzada behar izaten da aurrera egiteko. Nik, hemen aurkitu ditut. Gainera, ikusten dut behetik badatorrela erreleboa. Adibidez, oraindik kadeteak diren neskek ari dira gurekin entrenatzen. Onena da, lehen taldeaz gainera, harrobiarekin lan ona egiten ari dela kluba. Adibidez, kadeteak Euskal Ligan ariko dira datorren denboraldian.

“Harrobiarekin lan ona egiten ari da kluba”

Saskibaloia berreskuratu du klubak Hondarribian, garai bateko taldea desagertu ondoren.

Bi proiektuak ezin dira konparatu. Hura talde profesionala zen, eta gu, harrobi klub bat gara. Dena dago harrobiaren inguruan eratuta. Lehen taldea gehiago agertzen da egunkarrietan, baina klubak argi dauka lehentasuna harrobia dela. Bertan dago elkartearen etorkizuna.

Tornola erreka-ren iturburua (Aiako Harria Parke Naturala)



GORKA MARTINEZ


unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: 2 ordu (geldialdirik gabe).


Distantzia: 8,37 km.

Desnibel metatua: 408 m.


Zailtasuna: erraza.




Ibilaldi laburra da, erraza eta ongi seinaleztatua. Arritxulo aterpetxean hasten da, Oiartzungo lurretan, Aritxulegi gainean, Oiartzun eta Lesaka lotzen dituen errepi-dean. Autoa parkinean utzi, eta egurrezko hesia zeharkatuko dugu, pista zabalean aurrera, Otsandola pagadian murgiltzeko. Behera egingo dugu pixkanaka, bide ero-soan aurrera, Tornola erreka-rekin topo egin arte (30').



Kanal zaharra izango dugu gidari, hurrengo minutuetan. Basotik aterako gara halako batean, eta Aiako Harriko tontor-rak ikusiko ditugu. Maldan behera jarraituko dugu gero, Portuberrira iritsi arte. Bertan, baserri batzuk eta zentral elek-triko bat topatuko ditugu (1:15). Ibilbi-deko puntu baxuena da. Maldan gora izango da bigarren zatia.



Aspaldi erabiltzen ez den Artxanbaleta-goikoa karobitik pasako gara. Karea urt-zeko erabili zuten garai batean. Bidean gora jarraituko dugu ondoren, berriro Arritxulora iritsi arte. Ibilbide biribila da, eta bi ordu inguru emango ditugu oinez. Mendian lehen urratsak eman nahi dituz-tenentzat egokia da ibilaldia.





Hirubide

Espagetiak Karbonara erara

Osagaiak:

- Espagetiak
- Esnegaina
- Piper hautsa
- Gazta
- Gatza
- Hirugiharra
- Olioia

Prozedura:

- 1-Ura eta olioia irakiten jarri eta espagetiak bota.
- 2-Esnegaina eta olioia irakiten jarri eta gatza bota.
- 3-Eltzeari piper hautsa eta gatza bota.
- 4-Dena prest dagoenean platerean jarri eta hirugiharra zatitan erantsi.



ON EGIN!!!

Egileak: Jone, Javi, Amy

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



sYstem Error

Bertsok: Gotzon Aizpiolea Etxegoien
Doinua: Gaixo nengoen joan dan aspaldin

Negu honetan gertatu zaigu gehiegiri gertatua eta pasa dut denbora pixkat Ospitalean sartua. Itxaron gelan marrak kontatuz izan dut zer pentsatua; ederra dela eredu honek eskaintzen digun tratua.

Bateko zerga, besteko BEZa kontua da ordaintzea, diotelako eman behar dela kostatzen dena lortzea. Aurpegi polit bat erakutsiz, ezkutatuaz atzea, lapur zuriek, erreza dute gurea dena hartzea.

Marrak kontatzen ari ginela iritsi zitzaigun txanda. Goizeko laurak baziren jada, haurra besotan etzanda. Berriz kontsultan utzi gintuzten beste norabait joanda, leher eginda ginelako ez genuen egin eztanda.

Baina eseri eta lasaituz pentsatu nuen ordea, medikuaren posizioa ez zela askoz hobea, ziztu bizian egiten zuen zezakeenaren doblea. Bera horrela zerabilkien gaitza bai zela grabea!

Abiadura hura ikusiz gogoratu nuen trena, inori ezer galdetu gabe egiten ari direna. Nork eman die gure dirua hormigoitzeko baimena? Tren azkarrago bat ote da ba herritarrontzat onena?

Lapurreta bat ikusten dugu gure muturren aurrean Politikari jeitsi mundura ta jarri hankak lurrean! Joka ezazu duintasunez, jendea modu txarrean baldosetako marrak kontatuz torturatu beharrean!

Elatzeta LH2

ITURRIAK IZOZTUTA

2017 honetan zero azpitik izan ditugun temperaturak iturriak izoztu dituzte.

Euskal Herrian temperatura oso baxuak izaten hari gara eta parke eta kaleetako iturriak izotz izoztutak geratu dira.

Irungo herritar bat konturatu da iturri guztiak izozturik geratu direla eta horren ondorioz ezin izango dugu Ura edan.

Herritarra udaletxera joan da eta alkateari kontatu dio dena, alkateak esan du lehen baino lehenago konponduko dutela iturriak eta espero dugu Ura berriz martxan jartzea.



Euskara ikasgeletatik kalera ateratzeko ahalegina egingo du udalak

Irun kuadrillak 2.0 izena eman dio Euskara arloak hiriko gazteentzat antolatu duen ekimenari

2016an egindako azken neurketen harira, ondoriozta daiteke Irungo gazteek euskara hezkuntza formalaren testuinguruan erabiltzen dutela. Ikasgeletatik kanpo, aldiz, gaztelaniaz aritzea da joera nagusia. "Argi geneukan, zerbitzu publikoa eskaintzen dugun aldetik, egoera horren aurrean neurriak hartu behar genituela", baieztatu dute Euskara arloko arduradunek.

2017ko aurrekontu parte hartzaileetan, hiriko kuadrillei zuzendutako programa baten proposamena aurrera atera zen. Haren haritik tiraka, Irun Kuadrillak 2.0 ekimena martxan jarri du Euskara arloak, Urtxintxa aisialdi eskolarekin elkarlanean. Gipuzkoa mailan, heziketa esparruko dinamizazioak, formazioa eta aholkularitza eskaintzen ditu Urtxintxak.

Kuadrillak 2.0 ekimenak Irungo gazteen artean hizkuntza ohitura berriak sustatzea du helburu, euskara, eremu formalarekin soilik lotutako hizkuntza izatetik, eguneroko bizitzan erabilgarri zaizkien tresnen multzoan sar dadin. "Ikerketa soziolinguistikoen arabera, orokorrean, euskarak egoera formaletan egin du gora. Aldiz, egoera informaletan, kalean, euskararen presentziak behera egin du", nabarmendu dute Euskara arlotik.

Otsailetik aurrera, ostiralero elkartuko dira Kuadrillak 2.0 ekimenean parte hartzen duten gazteak, 19:00etatik 21:00etara. Elkargune ezberdinetan bilduko dira, izenemateen kopuruaren eta parte hartzaileen adinen arabera. Orokorrean, gonbidatutako gazteak DBHko ikasleak dira, 12 eta 16 urte bitartekoak. Zehaztutako espazioak, oraingoz, lau izan dira: hiri erdia, Behobia-Artia, Anaka eta Katea-Landetxa.

Gazteen proposamenak jasotzea espero dute

"Lehen saioetan, taldea ezagutzeko jolasak egingo ditugu", azaldu du Zuriñe Urbieta Urtxintxa elkarteko kidea: "Asmoa da, aurrerago, haien gustukoak izan daitezkeen ekintzak antolatzea". Horretarako, metodologia parte hartzaile baten bidez, gazteek haien iritzia, interesak eta nahiak plazara ditzaten ahaleginduko dira. "Guk ekintzak antolatuko ditugu, baina haien proposamenak ere entzun nahi genituzke", nabarmendu du Urtxintxako Maite Sagasetak.

Ostiraletako topaketez gainera, ekintza bereziak ere egingo dituzte: egun pasak, edo asteburu guztiko irteerak, adibidez. Otsailetik aurrera, ikasturtea amaitu arte ariko dira oraingoz. Hala ere, udari begira proposamena luzatzeko aukera aztertzen ari dira jada. Oraingoz, izenematea zabalik dago. Ikastetxeetan egin daiteke, edo www.urtxintxa.eus web gunean, bestela. Guztiz doako ekimena da Irun Kuadrillak 2.0.

"Guk ekintzak antolatuko ditugu, baina haien proposamenak ere entzun nahi genituzke"

Maite Sagasetak, Urtxintxa elkarteko kidea



"Lehen saioetan, taldea ezagutzeko jolasak egingo ditugu"

Zuriñe Urbieta, Urtxintxa elkarteko kidea



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Mugaz gain- diko grafiti lehiaketa

"Egunsentia edo ilunabarra Txingudiko badian"

Baldintzak:

- Lehiaketan parte hartzen duen bakoitzak BOZETO BAKARRA aurkeztuko du, tamaina txikikoa

- Irabazleak Bidasoako Interpretazio Zentroaren pertsonan benetako tamainan grafitia egiteko aukera izango du

Adina: 16 -30 urte

Saria: 200 euro

Epea: martxoak 28

Informazio gehiago:

- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa, Iparralde hiribidea, z.g. -Kostorbe eraikina- Irun, Tel.: 943.633.963

- Bidasoako Interpretazio Zentroa, Iparralde hiribidea 63 - Irun. Tel.: 943.505.826 e-maila: consorcio@bidasoa-activa.com Web: www.irunhondarribiahendaye.com



Ikasi eta lan egin kirol munduan!

Ikastaroa: Taldeko prestakuntza fisikoa musikak lagunduta

Lan egin gimnasio eta/edo kiroldegietako entrenatzaile gisa edo aerobic, step edo indor txirringarritako monitorea gisa

Ordutegia: 09:00-14:00

Lekua: Mendibil Prestakuntza Zentroa (Letxunborro hiribidea 58, Irun) 943 610 610

Prezioa: Doan

Izena emateko: www.lanbide.euskadi.eus



Irungo Gazte Boluntariotza

Ba al zenekien gure eskualdean boluntariotza egiteko elkarte mordo dagoela? Ezagutzen al dituzu euren lan esparruak?

Gaur egun esparru hauetan boluntariotza premia bereziak dituzte:

- Gaixotasunak
- Bazterkeria egoera (edo arriskuan) dauden pertsonekin
- Kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan
- Larrialdiak/Babes zibila

Baina ez dira aukeran dauden eremu bakarrak! Edozein momentu da aproposa boluntariotzan hasteko.

Informazio gehiago:

Irungo Gazte Boluntariotza Zerbitzua
CBA gunea, San Juan plaza, z/g (IGazte)
gazteboluntariotza@irun.org
Telefona: 943 505 440

Ordutegia:

Astelehena eta asteazkena: 16:00 - 20:00
Ostirala: 10:00 - 14:00

AUSARTU eta ONTZIRA ZAITEZ!

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerika, Asia eta Afrikan hain zuzen ere, esperientzia hiru hilabetez, uztailetik urrira arte izango da, eta parte hartu nahi baduzu:

Bete beharreko baldintzak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri bateko erroldan inskribatuta egotea
2. 1988 eta 1996 artean jaio izana, bi urte horiek barne
3. Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menderatzea

Izena emateko: otsailaren 19ra arte



OTSAILAK

3

Zer?

Kaldereroen konpartsa

Ordutegia eta ibilbidea?

19:00etan. Alberto Anguera plazatik irtengo da eta Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki kalea, Colon Ibilbidea, Foru Karrika eta Nagusi kaletik igaro ondoren, San Juan plazara iritsiko da

Antolatzailea?

Irungo Atsegina

4

Zer?

Inude eta Artzainak

Ordutegia eta ibilbidea?

12:00etan. Santiago Karrikatik irtengo da, Eskola kalea, Eliza kalea, San Juan plaza (atseden bat), Nagusi kalea, Foru Karrika, Colon Ibilbidea, Zabaltza plaza (hemen dantza emanaldia eskainiko dute Musikako Udal Kontserbatoriaren Musika Bandarekin) igaro ondoren, Luis Mariano kalean amaituko da

Antolatzailea?

Eraiki Dantza Taldea

8

ostegun gizona

Zer?

Zanpantzar

Ordutegia eta ibilbidea?

19:00etan: ZANPANTZAR konpartsa, Gaiteroak, Bidasoako Erraldoiak, Irungo Udal Kontserbatorioko Ikasleak, Auntza Trikitrixa Taldea eta Txingudi Dultzaineroak lagun dituela, Alberto Angueratik irtengo da eta Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki kalea, Colon Ibilbidea zeharkatu ondoren, Zabaltza plazaraino helduko da

19:30ean: ZANPANTZARRA jarriko da Zabaltza plaza, eta ERRALDOIEN Balsa, Bidasoako Erraldoiak eta Musikako Udal Kontserbatorioren partaidetzarekin.

9

ostiral kaxkarra

Zer?

Inauterietako konpartsen aurkezpena

Ordua

20:00etan

Lekua

Amaia KZn

Prezioa

Sarrera gonbidapenarekin

09:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA. ERAIKI DANTZA TALDEA Bidasoa eta Behobia auzoetan ibiliko da baserriz baserri.

- 09:30ean: BASERRI GIROKO INAUTERIA. IBARLA MEAKA DANTZA TALDEA Meakako baserrietan barrena ibiliko da.

- 10:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA. TXORIMALOAK SOINU

TALDEA Anakan barrena ibiliko da baserriz baserri.

- 12:00etan: Pio XII. plazatik aterako da EUSKAL-HERRI INAUTERIA, Altsasuko inauteria - Motxorroak, eta Serapio Mugica, Juan Arana, Luis Mariano, Zabaltza plaza, Colon ibilbidea, Foru Karrika, Kale Nagusia, San Juan plaza, Eskoleta kalea, Junkaleko plazatxetik igaro ondoren, Erromes plazan amaituko da.

Kemen Dantza Taldeak antolatua da ekitaldi hau.

-17:00etan: INAUTERIKO DESFILEA. Letxunborro hiribidetik irten eta Urdanibia plazara helduko da.

- 20:30ean: Musika Animazioa BURRUNBA Elektro Txarangarekin.

- 20:30ean: Diskofesta. Zabaltza plazan.

11

zaldun inautea

- 09:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA. EGOIPAR MEAKA DANTZA TALDEA Meaka auzoan ibiliko da baserriz baserri.

- 09:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA. MEAKAKO ADIXKIDEAK DANTZA Taldea Arbesko plazatik irten eta Meaka auzoan barrena ibiliko da.

- 09:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA.

KEMEN DANTZA TALDEA Olaberria auzoan ibiliko da baserriz baserri.

17:00tan: INAUTERIKO DESFILE HERRIKOIA. Letxunborro hiribidetik irten eta Urdanibia plazara helduko da, ZANPANTZAR ETA KONPARTSAK lagun izango dituela.



Txotx denboraldia hasi da Ola Sagardotegian

Ketxus Ponce hondarribiarra omendu dute irekiera ekitaldian



Txotx denboraldi berri bati hasiera eman zion Ola Sagardotegiak urtarrilaren 21ean. Txalapartak, trikitixak eta bertsolariek giroturiko bazkari jendetsuan sagardo ekoizpen berriaren emaitzak dastatzeko aukera izan zuten bertan bildu zirenek. Gainera, urtero bezala, gonbidatu berezia izan zuten, Ketxus Ponce hondarribiarra izan baitzen 2018ko sagardo denboraldia inauguratzeko ohorea eduki zuena.

“Jendeak aurtengo sagardo berria probatzeko gogo handia du”, azaldu du Iñaki Bengoetxea Ola Sagardotegiko jabeak. Beste denboraldietako sagardoarekin alderatuta, aurtengo edariaren kolorea argiagoa da eta, zaporeari dagokionez, gustu leun eta finekoa da. Hilabete batzuetan zehar sagardotegiak atek itxita eduki dituen arren, bazterretan pilaturiko armiarma-sareak garbitu eta sagardoa kupeletan sartu ostean, txotx denboraldi berriari ekiteko prest daude Olan.

Denboraldi berriaren hasiera ospatzeko antolaturiko ekitaldian, giro ona eta sagardoa nagusi izan ziren. Musikaren, dantzaren eta bertsoen artean sagardozaleek denboraldi berriari harrera egin zioten, urtero legez. Egurrezko mahai luzeen inguruan bilduriko aurpegi ezagunen artean, Ketxus Ponce hondarribiarrak txotx denboraldiari hasiera eman zion. Ola Sagardotegiko 20. txotx eguna izan da aurtengoa.

Sagar kopuru handia bildu dute

Aurtengo sagar bilketak arazoak eragin ditu, ordea, aurreko urteekin alderatuta, sagar kopuru handia lortu baita. Eguraldi ona izan da uzta emankor honetan eragina izan duen faktoreetako bat. Iñaki Bengoetxearen hitzetan baserrietan sagar asko zegoen eta sagastiak sagarrez beteta zeuden. Sagar kopuru izugarri hori biltzea ezinezkoa zenez, sagar batzuk usteltzen ere utzi behar izan dituztela aitortu du sagardotegiko jabeak.

Ondorioz, bilketa prozesua gehiago luzatu da. Lursailaren arabera sagar bilketan makineria erabil daiteke, prozesua azkartzeko. Beste kasu batzuetan, ordea, lur-eremuaren ezaugarriengatik bilketa eskuz burutu beharra dago eta, honek, prozesua luzatzen du, ezinbestean. Iñaki Bengoetxea sagardotegiko jabeak adierazi duenez, bere lurretan 160 tona sagar bildu ditu.

Sagarrak Bengoetxearen lursailetan zein Irun, Hondarribia eta Zarautz inguruan kokaturiko lursailetan biltzen dira. Urtero sagarrak leku berdinetan biltzen dituzte, jatorrizko izendapenak ezarritako mugak betetzeko. Homologazio honen bitartez sagastiak GPS sistemaren bitartez lokalizaturik daude, kalitate kontrol zorrotzak gainditzera beharturik daude, prozesuaren amaieran kalitatezko sagardo bat lortzeko.

“Jendeak aurtengo sagardo berria probatzeko gogo handia du”

Iñaki Bengoetxea, Ola Sagardotegiko jabea

Gero eta gehiago dira jatorrizko izendapena lortzen ari diren sagardoak. Iñaki Bengoetxeak onartu du izendapen honek merkatuan lekua irekitzen ari diela, beste edariekin lehiatu ahal izateko. Jendeak konfiantza handiagoarekin irekitzen ditu zigilu honekin izendatuak dauden sagardoak, edariaren garratzasuna mugatzen baitute. Jatorrizko izendapena lortzen duten sagardoek kalitatezkoa eta gustagarria izango den produktu bat ziurtatzen dute.

Gonbidatu berezia

Sagardo berria aurkezteko ospakizunean Ketxus Ponce hondarribiarrak ardura berezi bat izan du aurtengoa, Txotx denboraldia inauguratzea egokitu baitzaio. Ola Sagardotegiko beteranoa da Ketxus, urte askotan zehar sagardotegian laguntzeko prest egon baita, trikitixa eta panderoarekin giro ona sortuz, besteak beste. Omenaldi txiki honen bitartez, arraunaren munduan, Hondarribiko Herri Olinpiaden antolakuntzan eta herriko hitzen bilketan burutu duen lana aitortu nahi izan dio Ola Sagardotegiak.

